

Europar integratzaileak

BAKARTXO TEJERIA OTERMIN

Eusko Legebiltzarraren lehendakaria

Egun on guztioi eta ongi etorri UPV-EHUko 2017ko udako ikastaro honetara. Mila esker guztioi parte hartzeagatik eta eskerrik asko *Eurobasqueri* gai honi buruzko hausnarketa garatzeagatik: *Erromako itunek 60 urte. Europar integratzaileak* berriak. Zer Europa berreraiki orain?”

Erromako Ituna, egungo Europar Batasuna denaren eratze-akta sinatu zenetik hirurogei urte igaro izanak atzera begiratzeko bidea ematen digu etorkizuna eratzeko.

Azken urte hauetan Europan bizi izan ditugun krisi eta egoera guztiekin, egiaztatu behar dugu arrakasta duen proiektu bati buruz hitz egiten ari garela, Europa batua osatzen dugun munduaren parte honetako bizitza aldatu duen errealitateaz.

Nekez imajina zezakeen gaur egungo errealitatea Eusko Jaurlaritzaren lehendakariordea izan zen Francisco Javier de Landaburuk Radio Euskadirentzako kronika batean 1949an Europaren hasiera agurtzen zuenean. “*Europa jaio da, eta ez da oraindik guk amestu dugun Europa federala, baina orain eratzen den Europa antolatu hau hobe daiteke; –esan zigun Landaburuk, eta hau ere adierazi zuen– ahul jaio den Europak gainontzeko gizakiengatik sufritzen duten izaera oneko gizakientzako itzaropena da, beste herriengatik sufritzen duten herri guztientzat. Agurtu dezagun Europa eta lan egin dezagun nahi dugun, behar dugun bezala egiteko eta sendotzeko*”¹.

Orain hobekuntza bat proposatzekotan, hobekuntza hori irudikatzen Francisco Javier de Landaburu beraren beste hausnarketa bat erabiliko nuke: “*bihotza aldenduta badago, Europa abstrakzio bat besterik ez da izango, soziologo eta politikariek onartutakoa, baina axolagabea masentzat*”. Alderdi hau biziki garrantzitsua da, Europak ezin du inoiz utzi bere arima galtzen.

Batez ere, Tratatu Eratzaileak dioen bezala, Erkidegoaren xedea da, merkatu bateratua eta ekonomia- eta diru-batasuna ezarri eta politika edo ekintza bateratuak eginez (...), hauek sustatzea: jarduera ekonomikoen garapen harmoniatu, orekatu eta egonkorra Erkidego osoan, enplegu eta gizarte-babeseko maila handia, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, hazkunde egonkorra eta ez inflazionista, lehiakortasunaren

¹ “Europaren jaiotza”, F. J. de Landaburuk Radio Euskadirentzat egindako kronika, 1949, F. J. Landaburu, *Obras Completas*, 1. liburukia, 287 or.

eta emaitza ekonomikoen konbergentziaren maila handia, ingurumenaren kalitatearen babes- eta hobekuntza-maila handia, bizitza-maila eta bizi-kalitatea igotzea, kohesio ekonomiko eta soziala eta elkartasuna estatu kideen artean.

Gu, Batasuneko herritarrok, proiektu hau izatearen arrazoia gara. Europa gara, berezko pluraltasuna eta integrazioaren protagonisten konplexutasuna integratzeko prest dagoen Europa. Proiektu komun batean berezko izaera eta kultura duten nazioak eta herriak biltzen dituen Europa. Eskubide indibidual eta kolektiboen errespetuan, bai eta eskubide sozialen errespetuan, oinarritutako Europa. Demokraziaren eta giza eskubideen balioen gainean eraikitako Europa.

Europa aldarrikatu nahi dut. Eta ez da aldarrikapen hau egiten dudan lehen aldia. Zuek dakizuen bezala, nire ustez, Europa behetik gora eraiki behar da, eta hori ez dut bakarrik esaten subsidiaritate printzipioa kontuan hartuta, baita horregatik ere, baina ez bakarrik horregatik. Mundu globalizatu honetan, eta gaur egungo Europan, Euskal Herriak orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoak zehazki, Europan integratua izateaz gain, Europako parte aktiboa izateko beharra du.

Gure lekua behar dugu Europan, orain lehen baino gehiago, eta are gehiago etorkizunean, eta behar horren azken arrazoia gizarte hau osatzen dugun gizon eta emakumeak gara; gizarte honen etorkizuna da. Europa ez baita bakarrik historia eta orainaldia. Europa da, batez ere, etorkizuna. Jakin badakigu Europako etorkizuna Euskadiren etorkizuna dela.

Horregatik, sinetsita nago udako ikastaro honetan egin daitezkeen hausnarketek eta ekarpenek Europako proiektua sendotzen lagunduko dutela.

Traducción al castellano del original en Euskera

Nuevas narrativas para la integración europea

BAKARTXO TEJERIA OTERMIN

Presidenta del Parlamento Vasco

Egun on guztioi, y bienvenidos a este Curso de Verano de la UPV-EHU de 2017. Gracias a todos por participar y gracias a EuroBasque por desarrollar esta reflexión sobre los “60 años de los Tratados de Roma. Nuevas narrativas de integración europea ;Qué Europa reconstruir ahora?”

Los sesenta años pasados desde la firma del Tratado de Roma, el acta constitutiva de lo que hoy es la Unión Europea, nos permiten mirar hacia atrás para construir el futuro.

Con todas las crisis y situaciones que hemos vivido en Europa en estos últimos años debemos constatar que estamos hablando de un proyecto de éxito que ha cambiado la vida de esta parte del mundo que constituimos la Europa unida.

Poco se podía imaginar la realidad presente el que fuera vicelehendakari del Gobierno Vasco, Francisco Javier de Landaburu, cuando en 1949 en crónica para Radio Euskadi saludaba los albores de Europa. “*Nace Europa, y no es tampoco, por ahora, la Europa federal que nosotros hemos soñado, pero esta Europa organizada que ahora surge va a ser susceptible de irse mejorando; –nos decía Landaburu, que también afirmaba– Europa, que nace débil, aparece ya como una esperanza para todos los hombres de bien que sufren de los otros hombres, para todos los pueblos oprimidos que sufren de los otros pueblos. Saludemos a Europa y trabajemos por fortalecerla, por hacerla como la queremos, como la necesitamos*”².

Puestos ahora a proponer una mejora, para imaginarla utilizaría otra reflexión del mismo Francisco Javier de Landaburu: “*si el corazón está ausente, Europa no será más que una abstracción, aceptada por sociólogos y políticos, pero indiferente a las masas*”. Este aspecto es especialmente importante, Europa nunca puede dejar perder su alma.

Máxime cuando, como marca el Tratado Constitutivo, *la Comunidad tiene por misión promover, mediante el establecimiento de un mercado común y de una unión económica y monetaria y mediante la realización de las políticas o acciones comunes (...) un desarrollo armonioso, equilibrado y sostenible de las actividades económicas en el conjunto de la*

² “Nacimiento de Europa”, crónica F. J. de Landaburu para Radio Euskadi, 1949, en F. J. Landaburu, *Obras Completas*, tomo I, p. 287.

Comunidad, un alto nivel de empleo y de protección social, la igualdad entre el hombre y la mujer, un crecimiento sostenible y no inflacionista, un alto grado de competitividad y de convergencia de los resultados económicos, un alto nivel de protección y de mejora de la calidad del medio ambiente, la elevación del nivel y de la calidad de vida, la cohesión económica y social y la solidaridad entre los Estados miembros.

Nosotros, las y los ciudadanos de la Unión, somos la razón de ser de este proyecto. Somos Europa, una Europa dispuesta a integrar su pluralismo consustancial y la complejidad de los protagonistas de la integración. Una Europa que reúne en un proyecto común a naciones y pueblos con identidad y cultura propias. Una Europa sustentada en el respeto a los derechos individuales y colectivos, así como a los derechos sociales. Una Europa construida sobre los valores de la democracia y los derechos humanos.

Quiero reivindicar Europa. Tampoco es la primera vez que lo hago. Como ustedes saben, en mi opinión, Europa hay que construirla desde abajo hacia arriba, y esto no lo digo solamente teniendo en cuenta el principio de subsidiaridad, también por eso, pero no solo por eso. En este mundo globalizado, y en la Europa actual, Euskal Herria en general y la Comunidad de Euskadi en particular, además de estar integrada en Europa, tiene la necesidad de ser parte activa de Europa.

Necesitamos nuestro lugar en Europa, en el presente más que en el pasado, y aún más en el futuro. La razón última de esa necesidad somos los hombres y mujeres que conformamos esta sociedad, es el futuro de esta sociedad. Y es que Europa no es únicamente una historia y un presente. Europa es —sobre todo— futuro. Más aún cuando somos conscientes de que el futuro de Europa es el futuro de Euskadi.

Por eso, estoy convencida de que las reflexiones y aportaciones que se puedan realizar en este Curso de Verano contribuirán a reforzar el proyecto europeo.